



2014KO EKAINAREN 26KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko ekainaren hogeita seian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Haizea Mendia Iztueta, Joseba Imanol Aran Barandiaran, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Ur-tzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, eta Juan Manuel Serna Portugal.

Kepa Goenaga Alikostes eta Felix Urkola Iriarte zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- MENDEKOEN ARRETARAKO ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOA-KO FORU ALDUNDIAREKIN HITZARMENA.-

Jarraian, mendekoen arretarako etxe-ko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetzea planteatzen den hitzarmena aurkezten da osoko bilkura-
ra bere onarpenerako.

Irastortza zinegotziak (EAJ) hitzarmen honi buruzko argibideak eskatzen ditu eta zehazki aurreko hitzarmenarekiko zein aldaketa dagoen.

Aranburu zinegotziak, Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen presidente gisa eskatutako argibideak ematen dizkio eta esaten du lehengo hitzarmenaren arabera finantzaketa %100 zela eta oraingoarekin finantzaketa %85ekoa izango dela.

Irastortza zinegotziak galdetzen du ea onartuko al luketen hitzarmen hori beste zeinu bateko alderdi politiko batek planteatu izan balu eta bukatzen du esanez beraiek abstenitu egingo direla.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du bera ere abstenitu egingo dela.

Guzti honen ondoren eta Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen proposamenez, bozketan jartzen da mendekoen arretarako etxe-ko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoa-



ko Foru Aldundiarekin izenpetzea planteatzen den hitzarmena, eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (Bildu), aurkako boturik gabe eta 5 abstentzioz (EAJ, PSE-EE), honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetzea planteatzen den hitzarmena, bere espedientean dagoena, onartzea.
- 2.- Hitzarmen hau Lazkaoko udalaren izenean izenpetzeko alkatea ahalmentzea.

IV.- E.L.A.REN MOZIOA.-

Alkateak esaten du, PSEk ere antzekoa den beste mozio bat aurkeztu duela kontuan izanda, biek bat egin daitekeen saiakera egin ahal izateko, mahai gainean uzten dela eta hurrengo bilkuran jorratuko dela gai hau.

V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Estensoro zinegotziak (EAJ) hurrengo ohiko osoko bilkura noiz izango ote den galdetzen du, kontutan izanda hilaren azken osteguna jai eguna dela.

Alkateak erantzuten dio aurreko asteko ostegunean izan litekela, hau da hilaren 24an.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du egun horretan egitekotan, ahal balitz, ordua aurreratzea eskatuko lukeela.

Alkateak erantzuten du saiatuko dela eta hitzegingo dutela, oraindik badagoela hitzegiteko astia eta.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hiru minutu gubi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature]

